

# EZAGUTZA SORTZEKO PROIEKTUAK 2024

## UPV/EHU barne-prozedura

### • ESKABIDEAK AURKEZTEA

#### 1. Proposamenean parte hartzen duen taldea berrikustea

Proiektuaren ikertzaile nagusiak **I. ERANSKINA** bidaliko du [micinn.dgi@ehu.es](mailto:micinn.dgi@ehu.es) helbidera (txantiloia eskuragarri dago webgunean), taldearen hautagarritasuna egiaztatzeko. Kudeaketa errazteko, mezuaren gaian "I Eranskina\_Ikertzailearen Izen/Abizenak" adierazi behar da.

I. ERANSKINA bidaltzeko epea: **2025/01/13 (BARNE)**

Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak eranskina berrikusiko du, "**Parte hartzeko irizpideak UPV/EHU loturaren arabera**" dokumentuan ezarritako irizpideekin (deialdiaren web-orrian dago eskuragarri), I. Eranskinean agertzen diren argibideekin eta deialdian zehazten diren bateraezintasunekin bat etorritz.

Taldearen balidazioa ahalik eta azkarren bidaliko zaio Ikertzaile Nagusiari.

#### 2. Aplikazioa/dokumentuak betetzea:

Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak eskaeren aplikazioa aztertuko du eskuragarri egon bezain laster (une honetan itxita dago), eta deialdiaren webgunean behar dituzten atalak betetzeko jarraibideak argitaratuko ditu.

#### 3. Legezko Ordezkararen sinadura lortzeko **(EGUNERATUA)**

Eskaera aplikazioan sortu ondoren, Ikertzaile Nagusiak honako dokumentazioa bidaliko du [micinn.dgi@ehu.es](mailto:micinn.dgi@ehu.es) helbide elektronikora:

- Sortutako **behin betiko eskaera** sinatuta (ikertzaile parte-hartzaile guztiek sinatuta).
- Aurkeztutako banakako edo koordinatutako **memoria** zientifiko-teknikoa (deialdian adierazitako formatuak/hizkuntzak errespetatuz, modalitatearen arabera)
- IN1 pertsonaren **CVA** eta, halakorik balego, IN2rena.
- UPV/EHUrekin **loturarik ez duten** ikertaldeko **kanpoko** kideek proiektuan parte hartzeko **baimenak**.
- Dirulaguntzarik jaso ez izanaren berriazko adierazpena**. Txantiloia ezkuragarri dago webgunean (aplikaziora ez da igo behar)

Sinadura bat edo gehiago behar dituzten dokumentu guztietan, sinadura horiek **elektronikoak** izan beharko dute beti, eta **aitortutako ziurtagiri baten bermea** izan beharko dute<sup>1</sup>. **Ziurtagiri digitalik ez duten kanpoko ikertzaileek eskuz idatzitako sinadura originalak aurkeztu ahal izango dituzte.**

Aurreko a) eta d) puntuan deskribatutako sinadurak/kanpoko baimenak ezin badira lortu epe barruan, Ikertzaile Nagusiak **Sinadurak/Kanpoko Baimenak erantzukizunpeko adierazpena** aurkeztu beharko du (txantiloia eskuragarri dago webgunean), pertsona guztiek eskabidean parte hartu dutela jakinarazi zaiela ziurtatuz eta baliozko sinadurak **deialdia ixten denetik 15 eguneko epean bidaltzeko konpromisoa hartuz**.

<sup>1</sup> EBAZPENEA, 2024ko irailaren 11koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko bitarteko elektronikoekin funtzionatzeko eta jarduteko arautegia argitaratzen duena. ([https://egoitza.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/contents/sobrelasede/normativa\\_y\\_firma?lang=eu](https://egoitza.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/contents/sobrelasede/normativa_y_firma?lang=eu))

Errektorego-talde berriarekin hitz egin ondoren, eta kontutan izanik izendapen berriak indarrean jartzeko/aldizkarian argitaratzeko datak zeintzuk diren, xedea izanik Unibertsitateak eskaerak baliozkotuko dituen Ministerioak (RUS) aitortutako legezko ordezkariak gabe gera daitekeen aldia ekiditzea, honako hau erabaki da:

**Eskabideak ixteko eta bidaltzeko barne-epea 2025/01/22ra, asteazkenera, AURRERATZEA.**

Ikerketa Kudeatzeko Zuzendaritzak 2025/01/24rako (ostirala) berrikusiko eta sinatuko ditu eskaera guztiak, **astelehenean, hilak 27, egungo legezko ordezkariaren sinadura ez baita indarrean egongo eta ez bailitzateke baliozkoa izango proiektuak erregistratzeko.**

Legezko ordezkari berriaren sinadura ez da indarrean egongo egun batzuk geroago arte, data zehatzaren bermerik lortu gabe, ez izendapena EHAAan argitaratzearen bermerik, ez sinadura berria garaiz Ministerioaren Erregistroan sartzearen bermerik gabe.

Horrela, eskaeren aplikazioan **UPV/EHUko legezko ordezkariari eta harekin harremanetan jartzeari buruz honako datu hauek** adierazi beharko lirateke deialdi honetarako:

**Legezko ordezkaria:** Inmaculada Arostegui Madariaga  
**Ordezkariaren posta elektronikoa:** [vrinvestigacion@ehu.es](mailto:vrinvestigacion@ehu.es)

**Arduradunarekin harremanetan jartzeko datuak:**

- **Izena:** Endika
- **Lehen abizena:** Ceballos
- **Bigarren abizena:** Uncilla
- **Tel.:** 94 601 8008
- **Posta elektronikoa:** convocatoria asestatales.dgi@ehu.es
- **Kargua:** Ikerketa Kudeatzeko zuzendaria

Ikerketa Kudeatzeko Zuzendaritzak **ezin izango du bermatu deialdi honetako eskabideak aurkeztea, baldin eta adierazitako barne-epeak errespetatzen ez badituzte.**

Dokumentazioa berrikusi ondoren, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak eskaera erregistratu eta sinatuko du. Egiaztagiria Ikertzaile Nagusiari bidaliko zaizkie.

**Garrantzitsua: Proiektu koordinatuak**

Proiektu koordinatuetan, IP bakoitzak bere azpiproiektuaren eskaera aurkeztu beharko du.

Kanpoko erakunde batek koordinatutako proiektu bat aurkezten duten ikertzaileek eskabidea itxi eta [micinn.dgi@ehu.es](mailto:micinn.dgi@ehu.es) helbidera bidali beharko dute, proiektu koordinatuaren erakunde koordinatzaileak ezartzen duen ixteko-epea **48 ordu baino lehenago.**

- **KANPOKO BAIMENAK (EGUNERATUA)**

Kanpoko proiektuetan parte hartu nahi duten UPV/EHUko ikertzaileek baimena izan beharko dute nahitaez.

Ikertzaileak **Kanpoko Proiektuetarako Baimena** dokumentua bete beharko du (txantiloia eskuragarri dago webgunean) eta [micinn.dgi@ehu.es](mailto:micinn.dgi@ehu.es) helbidera bidali beharko du, mezuaren gaiari "Kanpoko Baimena\_Izen Abizena" adieraziz.

**Kanpoko Proiektuetarako Baimena eskatzeko epea: 2025/01/22 (BARNE)**

Eskaera berrikusi ondoren eta, hala badagokio, Ikerketaren Arloko Errektoreordeak sinatu ondoren, baimena interesdunari bidaliko zaio. Baimen horrek barne hartuko du, proiektua gauzatzeko aldi osoan loturari eusteko konpromisoa.

**Garrantzitsua:**

Oro har, UPV/EHUko ikertzaileak ezin **izango dira Ikertzaile Nagusiak izan beste erakunde baten proiektu batean.** Salbuespen gisa, aukera honetan interesa dutenek baimena eskatu ahal izango dute [micinn.dgi@ehu.es](mailto:micinn.dgi@ehu.es) helbidera idazki bat bidaliz (formatu librean). Dokumentu horretan eskaera hori justifikatzen duten arrazoiak azaldu beharko dira. Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak kasua aztertuko du eta eskaera hori baimendu ahal izango du edo ez.

Kanpoko ikertzaileak UPV/EHUren proiektu batean Ikertzaile Nagusia izateko, eskabidea nahitaez aurkeztu behar da **UPV/EHUko beste ikertzaile nagusi batekin**

- **HARREMANETARAKO:**

UPV/EHU:

[micinn.dgi@ehu.es](mailto:micinn.dgi@ehu.es)

MINISTERITZA:

[proyexcyret.solicitud@aei.gob.es](mailto:proyexcyret.solicitud@aei.gob.es)